



Korrika Txikiak egin dituzte jada Anoetan, Areson eta Lizartzan

HELDUAK ▶ Anoetan helduen mailako Korrika herrikoia ere egin zuten atzo arratsaldean

LEITZALDEA ▶ Gaur gaueko 3:30ean pasatuko da Korrika Leitzatik eta ondoren Aresotik ▶ 6-7



Anoetako Ikastolako txikiak lekukoaren zain atzo, Korrika Txikiaren azken zatia egiteko prest. IMANOL GARCIA

TOLOSA ▶

Poesia errezitaldia, datorren ostiralean

Galtzaundik antolatu du Udalaren laguntzarekin ▶ 2

TOLOSA ▶

«Minduta eta haserre» Aldundiaren tratuarekin

Gerontologikoko langileak egoeraz mintzatu dira ▶ 3

ZIZURKIL ▶

Blues eta funky musika tabernetan

Lau talde ariko dira herriko hiru tabernetan ▶ 4

ALTZO ▶

Gaztainaga familia, elkartuta ▶ 5

Tak MUSIK

MUSIKA TRESNEN MERKATU TXIKIA

Noiz: Martxoaren 14tik 31ra arte
Non: TAK MUSIK Easo 81, Donostia

Askoz ere merkeago:

- Gitarra Elektrikoak, Akustikoak
- Baxu Elektrikoak
- Pianoak
- Bateriak eta Perkutsioa
- Gitarra eta baxua anplifikatzekoa
- Bateriako platerak
- Osagarriak, klasikoko mazo eta makilak, hariak, kableak, zorroak eta abar

31

aretoaren inaugurazioko kontzertu erraldoia Lekunberrin

Martxoak 19an 22:00etan

Orishas taldearen disko berriaren aurkezpena eta artista gonbidatua

Sareren salmenta: 12 € aurretik-15 € leihatilan
Iruña: Typo dendak, Xalbador Megadenda / Lekunberri: Amalur taberna
Tolosan: Oskarbi kafetegia / Zizurkil: Aurrera taberna / Donostia: Bilintx

KULTURA ▶



Tolosako Laskorain ikastolako eta Hirukide ikastetxeko ikasleak, atzo, poesia errezitaldiaren bigarren edizioaren inguruko azalpenei adi. L. MONTES

Hitzak maitasunari...

Galtzaundi Euskara Taldeak Udalaren laguntzarekin antolatutako poesia errezitaldiaren bigarren edizioa aurkeztu dute: datorren ostiralean izango da

IRATXE ETXEBESTE

Taula gainean ikusi ahal izan genituen iaz inguruotako egunen batean ikastetxe bateko eta besteko ikasleak, neska eta mutil, kide-eko kitarrak, pianoz, eskusoinuz edo perkusioarekin ateratako doimuen karietara poesia errezitatzen. Era horretara adierazten zituzten maitasun, gorroto edo askatasun sentimenduak. Hitzek, hitzekin.

Dantzan egiten zuten beste batzuek, musika tresnen karietara hitz eginez sentimenduak adierazten zituztenen erritmoa maitasunaren, gorrotoaren edo askatasunaren berri gorputz mugimenduen bitartez emateko. Sentimenduen berri. Besteek itxura egiten zuten, bakardadearen edota iluntasunaren beldur zirela...

Leidor zinema aretoan egin zuten lehen agerraldia jendaurrean, eta lehendabiziko haren ostean etorri ziren beste batzuk. Proiektuaren sustatzaileek harrotasunez zioten ekimen hark gazteengan poesiarekiko zelaletasuna pizten zuela. Eta ez



Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkari Iñaki Zubeldiak eta Angela Alamok eman zituzten errezitaldiari buruzko argibideak. L. MONTES

zebiltzan oker, nonbait, antolatzailerak bigarren edizioa ari direlako prestatzen datorren astearen hondarrerako.

Hain zuzen, atzo egin zuten Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkari Iñaki Zubeldiak eta Angela Alamok aurtengo ekitaldiko aurkezpen prentsaurrekoa Kultur Etxean. Haien aurrealdean ziren Laskorain ikastolako eta Hirukide ikastetxeko ikasleak, Zubeldiaren ahotik «poesiaren eta sentimenduen mundua ezagutzeko eta oler-

kiak euskaraz ere goza daitezkeela adierazteko» omen den ekitaldiaren nondik norakoak aditzen. Era berean, haiek izango dira hilaren 18an, ostiralarekin, Leidorren izango den «saio artistikoan» parte hartuko dutenak, Orixe institutuko eta Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasleekin batera.

«Iaz garbi geratu zen gazteek ere badutela zer esana poesiaren munduan», zioten ekimenaren sustatzaileek. Izatez, datorren ostiralean errezitatuko

dituzten olerki guztiak gazteek eurek egindakoak dira: maitasunari, naturari, bizitzaren legeari eta herriari idatzitako hitzak. Beraiek interpretatutako musikaz lagunduta entzun ahal izango dira denak.

Eta ekitaldiari «lehiaketa kutsua» kentze aldera, Laskorain, Hirukide-Eskolapioak eta Orixe ikastetxeetako ikasleek talde bateratu gisa aurkeztuko dituzte haien lanak, iazko bakar-kako saioen lekuan. Gainera, ikastetxe guztietako gazteen olerkiak liburuxka batean emango dituzte argitaratu, «jende artean banatzeko eta parte hartu duten ikastetxeetara bidaltzeko».

Poesia errezitaldiaren ostean, «Iparraldeko gazteak eta Tolosako hiru ikastetxeetakoak ogitartekoak jatera eta freskagarriak hartzera gonbidatuko ditugu, anaitasun lokarriak sortzen eta eraikitzen joan daitezen eta poesiak eta euskarak elkartzeko gaituela kontura daitezen». TEE, Turismo Ekinbide Etxean egin dute hitzordua Galtzaundi Euskara Taldekoek; Leidor antzokiaren parean.

ERREZITALDIA ▶

Galtzaundi Euskara Taldeak poesia errezitaldia antolatu du hilaren 18rako Tolosako Udalaren laguntzarekin. Hona hemen ekitaldiaren inguruko argibide batzuk:

XEHEZASUNAK

Ekitaldia. Poesia errezitaldia izango da, musika tresnen laguntzarekin: eskusoinua, teklatura, kitarra, txalaparta, baxua, txeloa, zeharkako flauta...

Poesiak. Babxilergoko eta DBHko ikasleek eurek sortu eta egindakoak dira.

Partaideak. 40 gaztetik gorako ariko dira guztira musika jotzen, abesten, poesiak errezitatzen...

HELBURUAK

Bildu, erraztu, erakarri, inplikatu... Asko dira poesia errezitaldiaren helburuak:

- ▶ Gazteen arteko anaitasun giroa piztea Tolosako hiru ikastetxeetako eta Iparraldeko ikasleak bilduz.
- ▶ Poesiara eta literaturara hurbiltzeko bideak erraztea.
- ▶ Musika eta antzezpena saio artistikoaren osagarri eta apaingarri izatea.
- ▶ Gazteen iniziatiba eta gogoia sustatzeko, eurak saioaren prestaketan inplikatzeko.
- ▶ Euskararen prestigioa bilatzea ekitaldi atsegini eta erakargarriaren bidez.
- ▶ Sentimenduen mundua ezagutzeko bitartekoak eskaintzea.
- ▶ Gazteek ere esateko gauza asko dituztela kontuan hartzea.
- ▶ Gazteen bitartez jende helduagoa ere kultur ekitaldi batera erakartzea.
- ▶ Honelako ekitaldi bat dela medio, ikastetxe ezberdinak eta irakasleagoa inplikatzeko.
- ▶ Gazteengan gauza artistikoetarako kontzientzia eta sugarra piztea.

EMANALDIA

Noiz. Datorren ostiralean, hilak 18, 18:30ean.
Non. Leidor zinema aretoan.
Sarrera. Dohakoa.

iragarki laburrak ▶

Peoiak. Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza

libreak: ikastetxeak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa. 943 65 01 93
Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.

Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur Hezkuntza. 106 plaza gaztelaniz, 52 euskaraz. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Mantenua. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Plaza libreak: erakunde publikoak. 943 65 01 93.
Gidariak. Plaza libreak: udalak, Eusko Jaurilaritza, Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Añoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.

ZIKLOTURISMOA ▶

Tolosa-Amezketan bihar, Marraskilo taldearekin

Marraskilo zikloturista taldeak hasi du dagoeneko denboraldia. Bigarren irteera bihar egingo dute. 75 kilometroko ibilbidea prestatu dute oraingoan taldekoek: Tolosa-Tejeria-Alegia-Orendain-Amezketan ibilbidea osatuko dute zikloturistek. Joan nahi duenak goizeko bederatzietan elkartearen egoitzara agertu behar du (Berazubi auzoa).

M-11 ▶

Kontzentrazioa M-11ko atentatua gogoratzeko

Udalak deituta, kontzentrazioa egin zuten atzo eguerdian, udaletxe aurrean, «M-11ko atentatuko biktimak gogoratzeko eta senitartekoei elkartasuna adierazteko asmoz». Hainbat herritarrek bat egin zuten ekimenarekin, eta udaletxe aurrean elkartu ziren, alderdi politikoetako ordezkariekin batera. 15 minutuko isilunea gorde zuten guztiak.



Atzoko kontzentrazioa. L. MONTES

AIZKORA ▶

Azurmendi eta Olasagasti aurrez aurre, bihar

Iñaki Azurmendi beasaindarrak eta Jose Mari Olasagasti igeldotarrak apustua jokatu dute, bihar, 12:00etan, zezen-plazan. 12 oinbiko nork azkarrago moztu lehiatuko dira bi aizkolariak, 6.000 euro jarri dituzte jokoan. Jakinmin handia piztu du apustuak, eta ikusle dezente espero dute zezen-plazan. Azurmendiarentzat lehen apustua da.

HAUTESKUNDEAK ▶

Botoa postaz emateko informazioa

Apirilaren 17an Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak direla eta, nahi duenak Batzokian informazioa eskuragarri duela azaldu du EAJK, «botoa postaz eman ahal izateko, ezinduen botoa tramitatu ahal izateko, edo hauteskondeen inguruko edozein zalantza argitzea». Astelehenean, asteazkenean eta ostiralean jo daitezke Batzokira, 20:00etatik 21:30era.

GERONTOLOGIKOA ▶

«Minduta eta haserre gaude»

Foru Aldundiak «hutsaren hurrengo» balira tratatu dituela salatu dute Gerontologikoko langileek; beren lan egoeraz mintzatu dira hedabideen aurrean

LEIRE MONTES

Erakundeek egindako adierazpenekin «minduta eta haserre» dira Gerontologikoko langileak. Haien egoeraren berri eman nahi izan dute hedabideen aurrean, eta Foru Aldundiak haiekiko izan duen jarrera salatu dute behin eta berrito: «Aldundiak hutsaren hurrengo bagina bezala tratatu gaitu, oso modu txarrean».

Arantxa Altolagirre erizaina da Gerontologikoan, funtzionarioa. Haren esanetan, 2004ko maiatza aldean hasi ziren zurrumurruak: «Egoiliarren harri zerrandak itxi egin zituzten, jangela eta garbiketa zerbitzuen kontratazio oinarriak atera ziren, inbertsio planean ez zen partidarik azaltzen zentroa egokitzeko...». Horren aurrean, Esther Larrañaga Gizarite Politikarako diputatuari gutuna idatzi zioten, eta ez zuten erantzunik jaso. «Denbora dezente pasatu eta gero jaso genuen haren gutuna, eta hauxe erantzun zigun: 'Harrera zerrandena obretan hastekoak diren zentroen ezaugarria da'».

Gauzak horrela, publikoki egoera salatzeari ekin zioten langileek; gatazkak hirur arlo dituela utzi nahi izan dute argi hasieratik: «Alderdiekin eta bestelakoekin bildu eta gero, jendeak gatazka hau lan gatazka dela pentsatzen duela iruditzen zaigu. Eta ez da hori bakarrik. Zentroak kalitate-galtzea ere dakar; eta eskualdean 64 plaza galduko dira». Lankideek esan dutenez, alkateak «baberestutako etxebizitzaren beha-



A. Altolagirre, Tapia, Garcia, L. Altolagirre eta Arozana langileak, Manu Leunda plataformako kidearekin batera, herenegun. L. MONTES

rrik ez» zuela ikusten esan zuten. «Baina hirur hilabete eskaseta, egi bihurtu ziren zurrumurruak».

Egoera, banan-bana

Altolagirreren esanetan, «funtzionarioei beste lanpostu bat emango digute; badakigu Eibarrera ez gairela joango, baina besterik ez».

Yolanda Garcia zaintzailea bitarteko funtzionarioa da. Gerontologikoan, Aldundiarentzat lan egiten duten aldi baterako langileak 10 dira: 8 zaintzaile, bitarteko funtzionarioak, eta 2 atezain. Guztiak «kale gorrian» geldituko direla azaldu zuten Garcia: «Askok 12 urte-tik gora daramatzagu hemen lanean. Eta kalean gaude. Lan poltsaren batean sartuko gintuela itxaropena genuen, baina ezezkorik besterik ez dugu jaso». Tolosako Udalak eta Foru Aldundiak hilaren 4an eskaintutako prentsaurrekoan Larrañaga diputatuak egindako adierazpenei erantzun diete

purua ere murriztu zuten. «Horrek guztiak adinekoren bizitza kalitatean eragina izan zuen: nahastea, gogorik eza, tristura...». Egun, langile taldea «lanik gabe» geldituko da.

Lurdes Altolagirrek hartu zuen hitza ondoren, eta Eulen azpikontratatuakoen enpresako langileen egoeraz mintzatu zen. Garbitzailea da bera Gerontologikoan. «Aldundiak eta Udalak prentsaurreko enpresak beste postu bana emango zigutela esan zuten arren, errealitatea guztiz desberdina da». Eulenek zaintzaile eta atezain zerbitzua eskaintzen du aste-biketa eta jai egunetan, eta garbiketa eta jangela zerbitzua eguneroa. Lehen multzoan 17 langile daude: «Guztiak dute lan amaiera arteko kontratua. Hilaren 30ean deuseztatzen dizkiete kontratuak, eta guztiak doaz kalera». Bigarren multzoan 15 langile daude: «Kontratu mugagabea dugu, eta enpresak bost lanpostu eskaini ditu: bat asteen 33 ordukoa, beste bat asteen 15 ordukoa, eta beste bat asteen 13,5 ordukoa: bi aste jarraian lan egin, eta hirugarrena atseten, astelehenetik ostiralera 22:00etatik 24:30era, eta asteburuetan 21:00etatik 23:00etara». Lanpostu hori aurkeztea «lotsagarria» dela adierazi zuten

Altolagirrek. Garbiketa eta jangela zerbitzuko langileei apirilaren 15ean deuseztatuko dizkie kontratuak.

Auzolan sukaldeak arduratzen den azpikontratari dago-kionean, 6 langile ditu. Lanpostu bat eskaini du. Apirilaren 15ean langabezia egongo dira langileak.

Taberna-kafetegia, ileapain-degi, podologia eta bestelako zerbitzuen inguruan «ezjakintasun handia» dagoela azaldu zuten Arantxa Arozana kafetegiko langile autonomoak. «Hilaren 15a arte dut kontratua, eta gero kalera noa. Jende guztiak esaten digu behekoak zabalik jarraituko duela, Aldundiak eta Udalak hala esan baitzuten prentsaurrean. Nola jarraituko du guztiak bere horretan, adinekorik eta langilerik ez badago? Oraindik ez dakigu ezer, azalpenen zain gaude». Asteazkenean bilduko dira Jokin Bildarratz alkatearekin.

Ostiralean, mahai-ingurua

Gerontologikoaren aldeko plataformak mahai-ingurua antolatuko datorren ostiralerako, hilaren 18a. Alderdi guztiakordezkariak bilduko ditu, itxieraren inguruan iritzia eman dezaten. 19:30ean izango da, udaletxe batar aretoan.

ARAMBURU
Salgai (Ibarra). Pisu zoragarria Euskal Herria kalean, Garaje ibia aukeratu.
Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larrañaga kalean, 112 m². Berrtua.
Salgai (Tolosa). Pisu handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeratu.
Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larrañaga kalean, 30.000.000 pta
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Jatetxerako zerbitzaria behar da Igandetan jai
665 708 770

OBRARAKO 'LEHEN MAILAKO OFIZIALA' behar da
650 713 608

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gazteluko Udaleko berogailua

Otsaila zuriz estali den sasoi honetan ez dut atsedetik hartu, ez Gaztelun, ez inon. Orduak eta orduak ematen ditut piztuta. Jendeak gustura hartzen nau, eta aurtengo neguarekin zeresanik ez!

Ostegunero bezalaxe, Gazteluko sendagile gelan nengoela, udaleko langile bat etorri zen, goizeko seiatarako, ni piztera. Herriko jendea sendagilearengana etortzerako, gela goxatu nuen, eta halako batean gizon talde bat sartu zen, eta ostegunero ohi dutenez, nire albora eseri ziren, beren bizkarrondoak goxatu nahi eta, «kanpoan ez dek giro!» gogoratuz. Bakarren

batek bere eskuak ere nire bizkarrean igurtzi zituen. Jaso zuten goxotasunarekin ia lokarturik zeuden euren mediku-txanda iritsi zitzaizenean.

Osteguneroko bezeroak zarenenez, Joxe Mari eta konpainia, nirekin gustura zeundetela uste nuen. Alabaina, esan didatenez, egun hauetan nitaz gaizki esaka aritu omen zarete: Gazteluko Udalak energia aurrezteko planaren kontua darabilzue ahozahoa, eta helburu honekin Udalak ez omen du berogailurik martxan jartzen. Zuen kezkatzea da, benetan! Ostegunetan egiten dizkidazuen bisitaldiak ahaztu al dituzue, ala?

Kontua zuek atera duzuzenez, eta gezurrari ere tartea eman diozuzenez, orain niri dagokit argibide batzuk ematea.

Juanjo eta Joxe Mari, aurreko legealdian Gazteluko udaletxea

berritu zenutela diozue; aitzitik, berrikuntza plana horren barruan berogailu-sistemak huts egin zizuten, edo ez zenidaten behar adina garrantzirik eman, izan ere, egoera *prekarioan* utzi ninduzuen. Berogailu-sare zaharkitua nintzen iada, eguneratu beharrekoa, eta bere horretan utzi ninduzuen, kasu piperririk egin gabe! Hori bai, saiakera bitxiren bat egin zuten: orduan zinegotzi zen Miguel Aurkia jaunak berogailu hornikuntzarako zuen depositu bat trukean eman nahi izan zion Udalarri; Udalak jaun honi exerako bidea eta inguruak txukuntzearen truke. Azkenean bertan behera utzi zenuten trukaketa, *prebarikazioan* erori zintzeketen eta.

Bitartean, Udaleko berogailu-sistema botila erraldoi laranjadunekin hornitzen zen, baina

ez zen modurik egokiena. Seguritate neurriek huts egiten zuten. Matxurak noiznahi. Aldizkako ikuskaritzarik ez zen burutzen. Hitz batean, lehertzeko arriskuan nengoen, eta zuek zineten, Joxe Mari eta konpainia, beste batzuren artean, arduradun bakarrak.

Legealdi honetako udal arduradunek nire berogailu-sistema honelaxe aurkitu dute: tirrikittarraka, nire azken egunak geratu zirela.

Herritarren lasaitasunerako sail honetatik jakinarazten dizuegu egun beharrezko ziurtasun neurriak hartu direla. Matxurak konpondu dira eta nire makinaria eguneratua dago, hotzari aurre egiteko preste. Makina bat naizenez, noizbait nekatu eta gelditzen banaiz, teknikarien ikutu batzuekin berriro martxan izanen naiz.

Joxe Mari Goikoetxea eta Juanjo Aranzabe, egun Gazteluko Udalan zinegotzi zaretenez, zuen ardura da jakitea:

1.- Udaleko berogailua, aurtengo neguari gogor egiteko, martxan dagoela aspalditxo.

2.- Aspalditxo da ere alkateak soldata kobratzeari utzi ziola.

3.- Eta hilabete bada Udalen orduetgia aldatu zela eta herri osoan, buzoietan banatu zela, idatzian ordutegi berria berri emanez.

Joxe Mari eta Juanjo, eguneratu behar den makinaria bakarra zuena dela uste dut, eta zuen aholkulariarena. Bien bitartean, ez zaitezte ostegunetan mediku kontsultako berogailu honen albora eseri, esker txarreko pertsonekin ez dut ezer jakin nahi eta!

LUISA LOPEZ TELLERIA (GIZARTEA ZERBITZUKO BATZORDEA) ▶ GAZTELU

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Blues eta funky musika herriko tabernetan

Lau talde ariko dira gaur herriko hiru taberna ezberdinetan

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo hiru tabernekin Funky eta Blues Jaialdia antolatuta dute gaur gauerako. Aurtengo hirugarren aldia izango da. Ekintzak aurreko urteetan izan duen harrera ona aprobetxatuta jarri da abian berriz ere festa.

Guaeko 22:30ean hasiko da jaialdia, Aurrera tabernan, Acido C taldearen kontzertuarekin. Donostiatik, Oretatik eta Elgoibartik datoz taldekideak, funk eta jazz doinuak astintzen. Kontzertu honetan, *La os-*

tra azul disko berria aurkezteari ekingo diote.

Hurrengo kontzertua Egarri tabernan egingo da. Alain Giroux eta Jean Louis Mahjun bikotea ariko da. 24:00etatik aurrera. Blues bikote hau Frantziatik dator. Giroux biolinean eta Mahjun gitarran direla, kalendar dituzten bi diskoak entzuteko aukera izango da. *Double Jeu* eta *Two for the show*.

Ondorengo kontzertua 01:30ean izango da. Atxulondo tabernan izango da hitzordua. THC taldea izango da emanaldia emango duena. Funky-a,

jazz-a eta house-a nahasten ditu Iruñeako talde honek. Taldeak, 2002an kaleratu zuen bere maketa —*THC* izenekoa— eta 2004etik aurrera zuzeneko diskoa du talde iruñearrak, *Homonime* izenekoa.

Azkenengo kontzertua, Aurrera tabernan egingo da eta goizeko 3:00etan hasiko da. Edu Big Hands & Whisky Handek eskainiko du emanaldia. Madriletik datorren blues talde madrildar honek bi disko kaleratu ditu, *Whisky train* eta *424*. Kontzertu guztiak doan izango dira.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Gizon bat atxilotu dute bikotea erasotzeagatik

Ustezko erasotzaileak emakumearen semea mehatxatu zuen labana batekin

I.GARCIA

Ertzaintzak V.G.G. 43 urteko gizonzkoa atxilotu zuen atzo goizaldean, Villabonan, ustez bere bikotekidea jo eta haren semea labana batekin mehatxatu zuelako, Herrizaingo Saitetik adierazi dutenez.

Adingabekoa den bikotekidearen semeak abisatu zion Ertzaintzari. Hau, kalera atera eta udaletxeko plaza inguruan Ertzaintza aurkitu ondoren, azaldu zion gizonzkoak bere ama jo zuela eta berari mehatxu egin ziola labana batekin. Gainera, gizonzkoak etxean

jarraitzen zuela adierazi zion. Ertzaintza etxera joan eta gizonzkoa bertan topatu zuen, ahalkolaren eraginpean. Adingabekoaren ama ere etxean zegoen, bularrean kolpe batekin, eta semearen informazioa berretsi zion Ertzaintzari. Proba hauek guztiak Ertzaintzak ustezko erasotzaile atxilotzeari ekin zion.

Atzo goizean Tolosako Goardiako Epaitegiaren esku geratu zen gizonzkoa, behin egun beharreko polizia izapide guztiak amaitutzat jo zirenean.

ANOETA ▶

Herriko festen inguruko bi bileretarako deia

Udaleko Kultura Batzordetik herriko festetan herriko artisten lanak ikusgai jarri nahi dituzte. Erakusketa antolatzeko bilera etzi, astelehena, egingo da, 19:30ean, udaletxeko bideo gelan. Bilera horren ondoren, 20:00etan, festin inguruko beste bilera bat egingo da, kasu honetan herri kirolak antolatzeko.

ADUNA ▶

Aldarrikapenak Emakumearen Egunean

Emakumearen Egunean elkarretaratzea eta idatzitako irakurri zuten Adunan, oraindik gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasunik ez dela lortu salatuzko: «Bildu gara desberdintasun horiek salatuzko eta berdintasuna exijitzeko. Eta ez da lan hori gaurko egunez bakarrik egin behar».



Emakumeen eskubideen alde egindako elkarretaratzea. HITZA

ASTEASU ▶

Gastronomi Jardunaldiak Aitzondon

Udalak Gastronomi Jardunaldiak antolatuta ditu Aitzondo elkartearen. Matrikula, edozein egunetarako, 5 eurokoa da. Izena emateko 69 19 07 zenbakian, 16:00ak eta gero. Saio guztiak 17:00etan izango dira. Astelehenean, bakailaoa; asteartean, ahatea eta asteazkenean postreak nola prestatu ikusiko da.

ABALTZISKETA ▶

Hurkoak memoria tailerra antolatu du bihar

Hurkoak memoria tailerra antolatu du Abaltzisketan bihar, bereziki adineko pertsonen zuzenduta. Udaletxe-ko areto nagusian izango da 11:00etan. Tailerraren gidaria Moira Zeberio da eta ondoko puntuak landuko ditu, besteak beste: memoriaren definizioa, motak, faseak, fase bakoitzean eragiten duten faktorea eta hirugarren adina eta memoria.

ALEGIA ▶

GRAVN txapelketa Beotibarren gaur

Gipuzkoako pilota taldea Bizkaikoaren aurka ariko da gaur Tolosako Beotibar pilotalekuan, arratsaldeko 16:30etik aurrera. Banakako eta binakako jubenilek jokatuko dute lehendabizi eta 22 urte azpikoek ondoren. Ugaitz Renobales alegiarra izan da GRAVN txapelketa jokatzeako aukeratuetariko bat, maila honetan lehen urtea duen honetan.

ELDUAIN ▶

Silo-bolak egiteko plastikoaren bilketa zerbitzua abian

Baserrietan silo-bolak egiteko plastikoak ingurugiroari sortzen dizkion kalteak direla eta, Mendi Nekazaritza Landa Garapeneko Elkartearekin elkarlanean, plastiko hauen bilketa zerbitzua martxan jarri da. Elduaingo Udalak Artatxu baserriaren ondoan finkatu du herriko plastiko guztien bilketa puntua; martxoaren 16an bertara eraman beharko dira bolak.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Ibarrako misioek Indiara eginiko bidaiaren batean. HITZA

ALTZO ▶ GIZARTEA

Gaztainaga sendikoen bideo emanaldia eta bazkaria dute gaur

Altzoko udaletxean 14:00etan izango da bideo emanaldia; ondoren, Arandia jatetxean bilduko dira bazkarirako

NOELIA LATABURU

Ekimen paregabera burutuko dute gaur eguerdian Altzon, izan ere Gaztainaga sendiko guztiak batuko dituzte euren arbasoen berri emateko, eta, horren ostean, bazkari legea egiteko. Guztira 68 gaztainagatarrek eman dute izena gaurko festan parte hartzeko. Euskal Herria osoan barrena barreiatzen dira deitura hauek dituztenak, eta gaurkoan gure eskualdeko herrietaz gain, Oiartzun, Añorga, Andoain, Donibane

Lohitzune eta Lasartetik hurbilduko dira, besteak beste. Hitzordua 14:00etan dute 68 lagun hauek Altzoko udaletxean. Bertan Gaztainaga sendiaren historiari buruzko bideo emanaldia eskainiko dute. Sendi honen katean Lukas Gaztainagaraino heltzea lortu dute, eta zuhaitz genealogikoari tiraka belaunaldiz belaunaldiko segida egin dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bideoan ez dira gaztainagar hauen guztien berri emango, baina «lan hori aurreragoko utziko dugu».

Helburu nagusia, beraz, «gu sortu gintuztenak gogora ekarri, batzuei poz txikia eman, eta batez ere egun ona pasatzea izango da, ez baita gutxi», aitortu dute antolatzaileek. Ondoren eskainitako bideo hau Gaztainagako sendikoen artean banatuko dute. Ikuskizunaren ostean, bazkaria egingo dute, Altzoko Arandia jatetxean. Antolatzaileak oso pozik dira ekimen honen eta eskerrak eman nahi izan diete izena eman duten guztiei.

Aste Misiolaria hasiko da astelehenetik aurrera

Igandera bitartean hainbat ekitaldi antolatu dituzte Ibarrako parrokiako saloietan

I. TERRADILLOS

Datorren astean, martxoaren 14tik 19ra, Ibarrako Kristau Elkarteko Misio Erabile taldeak Aste Misiolaria antolatu du. Saio guztiak Ibarrako parrokiako geletan egingo dira, arratsaldeko 20:00etan. Programa honetan parte hartzeke gonbita luzatu dute elkartetik. Gonbidatuen artean asteartean Agostiño eta Zoilo kristau sekularrak izango dira, euren Angola eta Ekuadorreko esperientziak eta bertan duten gizarte lan jardungo dutelarik. Asteazkenean, berriz, Joseba Agote kiropraktikako sendagilea izango da hizlari.

ASTE MISIOLARIA ▶

EGITARAUA

Astelehena. Indiako misio lanen aurkezpena, diapositiba emanaldiarekin.
Asteartea. Ekuador eta kristau sekularren gizarte lana aurkeztuko dute.
Asteazkena. Joseba Agote, Indian izan den kiropraktikako sendagilea izango da.
Ostirala. Afari solidarioa 20:00etan. Prezioa 10 eurokoa izango da.
Larunbatean. Eukaristia misiolaria 19:00etan Parroki elkartean.

hitza lagunena
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEABURU ▶

Aisialdirako
begirale
lanpostuen
deialdia

Aste Santu, uztaila eta Gabonetako ludoteka eta udalekuetarako behar dira begiraleak

I.TERRADILLOS

Leaburu-Txaramako udalak aisialdirako begirale lanpostuak hornitzeko deialdiaren oinarriak kaleratu ditu. Deialdi honen xedeak aurtengo Aste Santu eta Gabonetako ludotekarako eta eta uztaileko udaleku irekietarako aisialdirako begirale lanpostuak hornitzea eta lanpostu bat sortzea dira. Lanpostuak E sailkapen taldearen barruan daude kokatu eta 6. maila dagokie.

Lanpostu hauen eginkizunak honakoak izango lirake: Txanda bakoitzarako egitarauak eta dagozkien lan txostenak eratzea eta zinegotziari aurkeztea, egitarauaren jardueren antolaketa eta dinamizazioa burutzea, begirale lanak egitea eta buruturiko lanari buruzko lan txostenak prestatzea eta aurkeztea.

Deialdi honetan parte hartzeko baldintzak 18 urte beteta izatea, lanpostuaren berezko funtzioak normalki betetzea galeraz dezan gaisotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea eta euskara menperatzea izango dira, eta haintzat hartuko da esperientzia izatea eta begirale titulua edukitzea.

Deialdiaren parte hartzeko eskaera Leaburu-Txaramako alkateari zuzenduko zaio eta Leaburu-Txaramako Udaleko erregistroan aurkeztuko dira martxoaren 16rako, ondoren puntuaketa ordenaren arabera argitaratuko da zerrrenda.



Mahala
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK



Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

GUTUN@K ▶



izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Badator
Korrika!

Badator Korrika, *Euskal Herria euskalduntzen; ni ere bai!* lempaean, euskararen txandala jantzi dutenen omenez.

Badator Korrika, oraindik ere euskararen txandala jantzi ez dutenei hartarako gonbita eginez.

Badator Korrika, erakunde-
en laguntza bai baina haien ba-
besik gabe, dirua eman bai,
baina hori ere ondo neurtuta
Ibarrako Udalak, kilometro bat
bere izenean jartzeko lain ez
behintzat, baina erakundeen
aldetik inolako dei edo gonbi-
terik gabe.

Badator Korrika, ezordutan
esango dute batzuk, baina ez
dago aitzakiarik, han eta he-

men Korrika Txiki ugari antola-
tu dituztelako.

Ibarran ere bai; asteartean,
arratsaldeko 17:30etan, Idoia-
gatik abiatu eta plazaraino Ko-
rrika Txikian joango gara.

Badator Korrika, ordu txikie-
tan, asmo handiekin. Egin die-
zalogun behar bezalako harre-
ra, baina ez dadila harrera be-
terik izan.

JESUS PEÑAGARIKANO ▶ IBARRA

TOLOSALDEA ▶ KORRIKA

Anoeta eta Lizartzatik
igaro da Korrika

Lizartzan eskolako txikiak eta herritarrak irten ziren;
Anoetan, berriz, lehendabizi txikiak eta ondoren helduak



Anoetan giro onean aritu ziren korrikan herriko kaleetatik. I.GARCIA



Lizartzan eskolako gazteak eta herritarrak atera ziren Korrika. I.T.

IÑIGO TERRADILLOS
IMANOL GARCIA

Atzo arratsaldean egin zuten Korrika Txikia Lizartzan eta Anoetan. Lizartzan eskolako haurrek zein herritarrek hartu zuten parte. Anoetan ikasleak aritu ziren korrika. Herri horretan, arratsaldean, baina beranduago, Korrika herrikoia egin zuten. Euskaraz dakienak egunero erabiltzeko ahalegina egitea, instituzioek laguntza gehiago ematea, dendariak erabiltzea, euskaraz ez dakienak ikasteko ahalegina egitea... horrelako mezuak entzun ziren ekitaldietan. Ibilbideak amaituta hitzaldiak izan ziren entzungai. «Euskara guztiona da, eta guztiontzat izan behar du; honek norbanakoaren konpromiso zehatza eskatzen du, gutariko bakoitzak berea dena zaintzeko hartu behar duen konpromezua», azaldu zuten besteak beste, Anoetan.

KORRIKA ▶

ASTEBURUKO EGITARAUA

Alegia. Asteartean 20:00etan poteo herrikoia eta ondoren afaria. Izen-ematea herriko tabernetan.

Altzo. Herriko plazan materiala salgai igande goizean.

Amezketak. Hamaiketako egingo da 12:00etan herriko frontoian. Sarrera 10 euro.

Irura. Gaur Hitzak Patriketan antzezlan Txalo taldearen eskutik Trinketean. Korrikarako materiala jarriko da salgai.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolari: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte, C. Korreo kalea

20 (Tolosa). 943 67 60 13

Larraia, M. I. Elbarren 5 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldeko_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Tolosa. Tolosan zerbitzaria eta sukaldaria behar da asteburuetarako. 635 700 559

KORRIKA ▶

Badator, badator Korrika: gaur gauean

3:05 aldera iritsiko da Kaxetara; 3:30ean herrira; Aresoko eta Leitzako eragileek euskararen alde egingen dute

JAIONE ASTIBIA

Gaurtik biharrerako goizalde honetan iritsiko da Korrika 14 gurera: Goizueta aldetik sartu eta Kaxetara 3:05ak aldera ailatuko dela dago iragarrita, eta handik aurrera Leitzako nahiz Aresoko eragileen txanda izanen da, jada herrira gurutzatu ondoren, 10 egunez Euskal Herri osoa zeharkatuko duen lekukoa larraundarre eman arte.

Horrela, bada, esan bezala, Kaxetan, Korrikaren 561. kilometroan hartuko du lehendabiziko leitzarrak aurtengo mezua daraman lekukoa: Gorritz eraikuntza enpresak zehazki. Hurrengo txanda, Aurrera Kirol Elkartea eta Asketa abesbatzarena izanen da eskuz esku. Eta ondorengo 563. eta 564. kilometroak, Amazabal Ikastetxe-ari eta Erelta eskolari egokitutako dira, hurrenez hurren.

Dagoeneko zuzenaren aldeko laisterketa herriaren sarreran izanik, Amazabal auzoa bistan dela, Leitzako Udalak hartutako kilometroa izanen da, ordezkari modura herritar batek eramanen duena. Horrela, herriko erdigunean, Alifia-ko atarian hasiko da Askatasunaren ibilbide zatia, hain justu Gorritzeneko pareko iturria arte. Han, 567. kilometroan, Karrape Irratiak hartuko du lekukoa, zozketaz egokitu zaion entzuleak eramanen duelarik, handik jada, herritik ateraz joanez, Uitz aldera.

Eta 568. ean, Aresoko Udalarren eta Aresoko Guraso Elkar-teen txanda izanen da, bien artean hartutakoa izaki (atzo okerreko informazioa adierazi genuen honen gainean). Beraz, 8 kilometrotan zehar euskararen aldeko oihu eta kantua eginez ibili edo laister egin ondoren, Korrikak bere lekukoa-ekin Larraun aldera jarraituko du aurrera, bere hazia ereinez.

Eragile hauek guztiak parte hartuko dute, beraz, 14. Korrika honetan gure bi herrietan. Bakoitzak duena emanez, eta euskara bulkatuz.

Atzo, Korrika Txikia

Horrelaxe ibili ziren atzokoan ere, Aresoko eskolako ikasle, irakasle, guraso eta herritar



6. mailakoek egin zuten herrirako sarrerako zatia. JAIONE ASTIBIA



Ttikienek ere beren zatia egin zuten, sasoi betean Areson. J. ASTIBIA

franko, herrian barrena egin zuten Korrika Txiki, ez hain tiki-ian. Izan ere, herrian sarrera-tik atera zirelarik, herrian gora eta behera ibili baitziren, lekukoa eta ikurrinak bizkarrean zitutuz, euskararen aldeko festa koloretsuan.

Aurtengo Korrikaren lema-

rekin bat eginez, herritar euskaldunberri batek «ni ere bai» adierazi zuen, eta «Nafarroa osoan euskara ofiziala izatea aldarrikatu». Ondoren, Pake Toki elkarteak, txokolate beroa hartu zuten parte-hartzaileek bizkotxoekin eta festarekin jarraitu.

LEITZA ▶ KIROLA

Pilota jaialdia Amazabal pilotalekuan

Gaur pilota-jaialdia izanen da, Leitzako Amazabal pilotalekuan, izan ere bi txapelketako partiduak baitira jokatzeokoak, elkarrean artekoak biak hala biak ere. Horrela, goizean lehendabiziko ariko direnak, 10:00etan hastekoak dira HITZATA igorri duten oharraren arabera, Belateko Klubean arteko Txapelketan parte hartzen ari diren pilotariak izanen dira, beti ere beren elkarrean ordezkari gisa ariko direlarik. Kadete eta gazte mailakoak jokatuko dituzte, aurrea aitatutakotan izanen direlarik leitzarrak: Olano-Alustiza (Aurrera)/Huizi-Barberi (Araitz). Beste hiru partidu ere izanen dira, bestalde. 12:30ean, berriaz, Euskal Herriko klubean arteko Txapelketako paleta gomako partidua izanen da,



gazteen mailan, ligaskako azkena. Kasu honetan Aurrera elkarteko bi bikoteak ariko dira elkarrean aurka: Astibia-Aristorena, Agirre-Iraolaren aurka. Laurak ere Leitzako elkartekoak. Aurrerako futbolarietako, ordea, asteburu honetan ez dute partidurik, atseden egitea egokitzen zaie honetakoan. Liga bukatzeko bi saio besterik ez dira gelditzen.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Harrobiaren galdeketa, baimendu dute

Atzo, Madrilen (Espainian) egindako Ministro Kontseiluan, «Leitzako herriko eremuan, harrobi bat ustiatzeari buruz herri-galdeketa egiteko eskaria baimentzea» erabaki zutela, agertu zen Nafarroako hedabide baten web-orrian, beti ere informazio-iturri modura informazio agentziak aitatuz. Baimen hau «herri kontsulta egiteko eskariak, Herri Erregimenaren Oinarriko Legeak ezartzen dituen betekizun guztien jabe izanik», eman omen dute, iturri berek adierazten zuten bezala, alegia «Udalak gehiengo onartutako eskaria izatea eta galdeketa gaia, herriaren eskumenekoa izatea, herriari dagokiona eta bizilagunentzat garrantzi bereziko», zehazten zuten berriak.

LEITZA ▶ GIZARTEA

EPPKren aldeko manifestazioa bihar

Bihar eguerdian, 13:00etan aterako da herriko plazatik, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aldeko manifestazioa, *Etxerat-ek* eta Euskal Presoen Aldeko elkarteak deituta. *Estatus politikoa orain! euskal presoak Euskal Herrira!* lemapean egingen dute herrian barrena itzulita, hain zuzen ere «EPPK-ak martxan duen txandakako itxialdiari elkartasuna adierazteko asmoz» eta «egin dituzten aldarrikapenekin bat eginez», oharrean adierazten dutenez. Bide batez, oroitarazi nahi izan dute, Igor Astibia leitzar preso, itxialdian dagoela lehengo larunbatuz geroztik, espetxeratuta dagoen Navalcarnero (Espainia) kartzelan. Horrela egonen omen da, hilaren 15a bitartean. Gero, EPPK osoak bezala, eta Aberri Eguna arteko egunetan, gose greba egingen duela argitu dute, bestalde.

Leitzako herria korrikarekin



LEITZAKO UDALA
012 udal telefonoa




IMANOL GARCIA

EREDUA FINKATUZ, ZERBITZUA HEDATU


0-3 urte bitarteko haurrak zaindu eta hezitzeko eskaintza zabala dago EAEn; haur-eskola munizipalak, Partzuergoko Haurreskolak eta izaera pribatua duten zentroak daude

▶ EAE-KO DATUAK



▶ 1. Haurreskolen kokapena (05-01-15)

▶ 2. Haurreskolen kokapena (05-09-15)



1. Haurreskolen kokapena (05-01-15)		2. Haurreskolen kokapena (05-09-15)		3. Eskaintza publikoa (0-3)	
1. Zubia	13. Iruia	24. Aduña	37. Aretxaba	49. Aita	62. Igarritsu
2. Alkorta	14. Lecioa	25. Barakaldo	38. Igetza	50. Aizu	63. Irujo
3. Erriberri	15. Amorebieta	26. Barakaldo	39. Alonsola	51. Daxos	64. Altona
4. Zumbaldi	16. Gernika	27. Barakaldo	40. Berria	52. Arona	65. Altona
5. Ondarroa	17. Barakaldo	28. Barakaldo	41. Segura	53. Barakaldo	66. Barakaldo
6. Erandio	18. Barakaldo	29. Barakaldo	42. Barakaldo	54. Barakaldo	67. Irujo
7. Galdakao	19. Barakaldo	30. Barakaldo	43. Barakaldo	55. Barakaldo	68. Barakaldo
8. Barakaldo	20. Barakaldo	31. Barakaldo	44. Barakaldo	56. Barakaldo	69. Barakaldo
9. Barakaldo	21. Barakaldo	32. Barakaldo	45. Barakaldo	57. Barakaldo	70. Barakaldo
10. Barakaldo	22. Barakaldo	33. Barakaldo	46. Barakaldo	58. Barakaldo	71. Barakaldo
11. Barakaldo	23. Barakaldo	34. Barakaldo	47. Barakaldo	59. Barakaldo	72. Barakaldo
12. Barakaldo	24. Barakaldo	35. Barakaldo	48. Barakaldo	60. Barakaldo	73. Barakaldo

BULTZATZAILEAK ETA HEZITZAILEAK

Partzergoan sartzeko arrazoiak, egindako ibilbidearen balorazioa... azaldu dituzte EAEko bi udal ordezkari; hezitzaileak, gertuko testigantza eskaini dute


Zarautz eta Gabiria. Haurreskolen Partzergoan sartuta dauden bi herri dira. 0-3 urte bitarteko haurerentzako zerbitzu hori eskaintzeko apustu egin zuten bertako udal ordezkariak: «Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuten eta horri erantzun ematen zuten bertako udal ordezkariak». «Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuten eta horri erantzun ematen zuten bertako udal ordezkariak».

1970. hamarkadan, Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuen. Bertako udal ordezkariak, «Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuten eta horri erantzun ematen zuten bertako udal ordezkariak».

Haurreskolen partzergoan sartzea, gurasoek erabakitzen dute. Zarautzko Udalak, «Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuten eta horri erantzun ematen zuten bertako udal ordezkariak».

1970. hamarkadan, Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuen. Bertako udal ordezkariak, «Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuten eta horri erantzun ematen zuten bertako udal ordezkariak».

Ordizongo haurreskola hezitzaile eta bertara paten diren hiru haurrak. ©ANUNDA



▶ PLAZAK PARTZERGOKO HAUR-ESKOLETAN (0-3 URTE)

	2005	2006
Municipialak	5.373	5.373
2-3 urteko gelak	10.026	10.026
Eskola publikoak	15.399	15.399
Pribatukoak	11.843	11.843
Pribatukoak + publikoak	27.242	27.242

▶ HAUR-ESKOLA MUNDUPALETAKO PLAZAK

	2005	2006
Finantziak	7.937.000 €	7.937.000 €
Haurreskolen partzergoak	12.370.700 €	12.370.700 €
Haurreskola partzergoak	10.591.000 €	10.591.000 €
2-3 urteko gelak eskola publikoak	35.066.982,67 €	35.066.982,67 €
Guztira	65.965.742,67 €	65.965.742,67 €

▶ PARTZERGOKO HAUR-ESKOLETAKO PLAZAK

	2005	2006
Finantziak	7.937.000 €	7.937.000 €
Haurreskolen partzergoak	12.370.700 €	12.370.700 €
Haurreskola partzergoak	10.591.000 €	10.591.000 €
2-3 urteko gelak eskola publikoak	35.066.982,67 €	35.066.982,67 €
Guztira	65.965.742,67 €	65.965.742,67 €

Haurrak, etxean baleude bezala

Instalakuntzekin eta zerbitzuarekin «gustura» agertu dira gurasoak

Haurreskolen partzergoan sartzea, gurasoek erabakitzen dute. Zarautzko Udalak, «Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuten eta horri erantzun ematen zuten bertako udal ordezkariak».

1970. hamarkadan, Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuen. Bertako udal ordezkariak, «Zarautzko Udalak bere haurtzaindegia zabaltzea erabaki zuten eta horri erantzun ematen zuten bertako udal ordezkariak».

ANJELES IZTUETA ▶ EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA

«Haurreskolek zaintza eta hezkuntza zerbitzua eskaintzen dute»

Partzuergoko Haurreskolak zentro publikoek 0-3 urte bitarteko umeen zainketa osoa eta hezkuntza integrala hartzen dituzte kontuan



EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzak familia eta lana uzartzeko laguntza ekonomikoa eskaintzen du Partzuergoaren edota diru laguntzen bitartez. 0-3 urte bitarteko eskaintza zabalteko eta antolatzeke saiakera egin du EAeko familien nahiei eta beharrei erantzun nahian. Horren guztiaren inguruko xehetasunak azaldu ditu Anjeles Iztuetak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua.

Zein da Partzuergoko haurreskolen abiapuntua?

Haurreskolak, Partzuergoari atxikitzeke hitzarmenetatik sortzen diren 0-3 urte bitarteko haur-eskola publikoak dira. Hitzarmen horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, eta Nekazaritza eta Arrantza udalerrien artean egiten dira, eta familiei laguntzeko erakundeen arteko planari erantzuna eman nahi diotenean. Familiak laguntzeko planaren barruan sartuta daude Partzuergoko haurreskolak; hori da 0-3 urte bitarteko haurreskolen abiapuntua. Haurtzaindegiek betetzen zuten funtzio asistentzial huts hori

HELBURUA

«Haurreskolak ez dira haurrak 'aparkatzeko' lekuak; gelek hezitzaileak izan behar dute»

gainditu nahi izan da; neska-mutulei kalitatezko hezkuntza ematea ere bilatzen da egun. Eredua finkatu ondoren, txikiak arlo publikoan haztea erabaki dugu. Eta hor, 0-3 urte bitarteko Haurreskolen Partzuergoaren irudia sortu dugu.

Eta zein eredu bilatu da?

Arazo asko izan ditugu bidean. Orain dela hogeit urtetik datoren arazoa da haur-eskolen zerbitzuarena, eta ez aurrera ez atzera, geldirik, zegoen gai hori. 0-3 urte bitarteko etapan kalitatezko zerbitzua eskaintzeak diru asko suposatzen du eta kompetentzien arloan definizio ezarekin egin genuen topo. Azkenean, 0-3 urte bitarteko eskaintza zabalteko eta antolatzeke saiakera egin dugu Euskal Herriko familien nahiei eta beharrei erantzun

SAIAKERA

«0-3 urte bitarteko eredu finkatzea oso lan zaila izan da; esfortzu handia egin da Partzuergo sortzeko»

nahian. 0-3 urte bitarteko eredu finkatzea lana oso zaila izan da; esfortzu handia egin da Partzuergo sortzeko.

Zein da Partzuergoko Haurreskolen helburua?

Hezkuntza proiektua duen haurreskola izatea, 'zaintza' kontzeptua gainditzen duena eta eskola testuingurutik harantzago joatea eskatzen duten helburu sozialak dituena. Haurreskolak ez dira haurrak aparkatzeko lekuak; gelek hezitzaileak izan behar dute. Haurren zainketa osoa eta hezkuntza integrala hartzen dira kontuan, haurren gaitasun fisiko, afektibo, sozial eta intelektualak behar bezala garatzeko.

Nola definituko zenuke eskaintzen den zerbitzua?

Kalitatezko zerbitzua eskaintzen dute; zentroetan langile

INBERTSIOA

«Urte betez haur baten plaza bakoitzeko 6.000 euro inguruko inbertsioa egin da kalitatezko zerbitzua eskaintzeko»

kualifikatuak daude haurrei beharrezko hezkuntza eta laguntza eskaintzeko. Euren eginkizunak egiteko trebatuak eta prestatuak daude. Haurreskolek seriotasuna dute eta hezitzaileek norbere neurriko arreta eskaintzen diete haurrei. Zaintza eta hezkuntza zerbitzua eskaintzen dute, ondorioz.

Zein harreman mantentzen dute hezitzaileek gurasoekin edota haurren arduradunekin?

Haurren hezkuntza eta ikaskuntza guztion ardura da, eta ezinbestekoa da familiarren eta haurreskolaren arteko lankidetzaren giroa ezagutzeke: afektiboa, soziala...

Arlo publikoaren aldeko apustua egin duzue, ezta?

Bai. Partzuergoko Haurresko-

lak zentro publikoak dira. Hala ere, guretzat garrantzitsua ez da titularitatea (sare publikoa eta kontzertatua), baizik eta eskaintzaren kalitatea.

Publikoa da baina ez doakoa. Zer dela eta?

Urtebetez haur batek betetzen duen plaza bakoitzeko 6.000 euro inguruko inbertsioa egin da, kalitatezko zerbitzua eskaini nahi delako. Familia bakoitzak kopuru horren %30 ordaintzen du. Ordaindu ezin duten familientzako beka daude, gainera. Doako zerbitzua izan zitekeen baina orduan ez genuke egun Partzuergoko zentroek duten kalitatezko zerbitzua eskainiko. Haurren janaria matrikularen kuotan sartzen ez delako, kritikak entzun ditugu; hori, egun, ezinezkoa da, eta horrela izatekotan, matrikularen prezioa ikaragarri igoko litzateke. Egun, haurren bazkaria gurasoen ardurapean geratzen da; hezitzaileek berotu eta jaten ematen diete haurrei.

Zein da Partzuergoko zentroen hizkuntza eredu?

Irakaskuntza elebiduna, eta gurasoen nahia eta inguruko errealitate sozio-linguistikoa hartzen dituzte kontuan. Zentro bakoitza bere ingurunerako egokitzen da, beraz. Partzuergoko hezitzaile guztiak elebidunak dira. Hala ere, euskara izango da haurren komunikazio-hizkuntza, irakatsi egingo zaie eta horretan ikasiko dute. Hori bai, norbere errimoan eta inor diskriminatu gabe.

Eta zein ordutegi izaten dute?

Ordutegi eta egutegi malgua izaten dute haurreskolek; gehienez, 11 orduz egoten dira irekita baina ordutegia familien beharretara egokitzen da, lekuan-lekuan.

Haurreskolak auzoetan eta herri txikietan ere sortu dira. Zein irakurketa egiten duzue horren inguruan?

Landa-eremuko herriak eta urrutiratuta dauden auzoak ez dira beti kontuan hartzen politika sozialean. Partzuergo sortzerakoan, berriz, lehentasunezko gaia izan zen. Zonalde horietan bizi diren bikoteek arazoak izaten dituzte haurra- ren lehenengo urteetan. Jai bezain laster haurrak bizi diren ingurunean hezitzaileak loturak sortzen ditu beraien artean; harreman horrek, era berean, gurasoen arteko sarea sortzen ditu.

Nolako harrera izan dute haurreskolek?

Aurten, Partzuergoko Haurreskolek zentroetan iaz baino mila plaza gehiago eskainiko dira. Partzuergo sortzeko egindako ahalegina fruituak ematen ari da. Haurreskolen hedapena oso bizkor doa.